

Krystal Ball



Handia eta bõteretsua

Ruby Ann Phillips

desclée

Krystal Ball



Handia eta bõteretsua

Krystal Ball bildumaren egilea

Ruby Ann Phillips

Ilustrazioak

Sernur Isik

desclée





Etorkizuna zain

Kaixo! Nire izena Krystal Ball da. Queens auzoan bizi naiz, New York Hirian. Batzuek Sagar Handia deitzen diote horri. Hala ere, gurasoak eta ni bi logelako apartamentu ñimiño batean bizi gara, eta, beraz, niri txiki-txikia iruditzen zait.

Ez gaizki ulertu... Gurasoak oso, OSO maite ditut. Ama ile-apaintzailea da gure eraikin berean, beheko solairuan. Aitak historia irakasten du institutuan. Beti dabil halako gauzak esaten: «Historia behin eta berriz errepikatzen da, laztana». Batek daki zer esan nahi duen.

Niri, ordea, iragana ez zait hainbeste inporta. Askoz gehiago erakartzen nau... etorkizunak.

Astrologia gustatzen zait, eskua irakurtzea eta izarrak aztertzea. Zergatik? Hara, sekretutxo bat esanen dizut: ez naiz guztiz normala. Txikia naizela usteko duzu, badakit, baina egiaz medium bat naiz. Horrek esan nahi du abilitade berezi bat dudala, seigarren zentzumen bat, nolabait. Amonak nire “dohaina” deitzen dio. Etorkizunean zer gertatuko den ikusteko balio dit, baina ez da oso irudi argia izaten. Pertsona bati edo objektu bati buruzko gauzak jakin ditzaket horiek ukituta, eta, batzuetan, ametsetan, gertakizunen zertzeladak agertzen zaizkit.

Oro har, kosta egiten zait irudipen eta amets horiek ulertzea, baina hori hobetzeko lanean ari naiz. Nikola Tesla ikastetxera noa, eta laugarren mailan ari naiz; ez da erraza etorkizun-igarlea izatea, eta, aldi berean, zientzietako proiektu, matematika azterketa eta etxerako lan guztiak egitea.

Zer gehiago esan dezaket niri buruz?
A, bai! Nire lagun mina, Billy, gure etxe
gainean bizi da. Bizitza osoa da ezagutzen
dudala, eta hori piloa da. Ia-ia hamar urte...
Uou! Nire beste lagun mina, Claire, gure
eskolara etorri berri da. Bai Billyk, bai Clairek
badute nire dohain txundigarriaren berri,
baina zin egin dute ez diotela inori esanen.

Elkarrekin, auzoan gora eta behera ziztuan
ibiltzen gara patinetean, abentura bila. Baina,
nire abildadeekin, abenturak aurkitu ohi
gaitu gu!

Tira, ulertu
duzu? Ongi.

Orain, hartu
arnasa sakon,
itxi begiak eta
hustu burua.
Etorkizuna zain
dut...



1. ATALA



Astelehen ka×karra

—Arraioa! —oihukatu nuen eskolako txirrinak jo zuenean. Lasterka jo nuen nire eserlekura, eta juxtu-juxtu eseri nintzen Callisto andereñoak, gure irakasleak, bere mahaitik burua altxatu aurretik.

—Egun on eta astelehen eder guztioi! —esan zuen, eta arbela zurira irristatu zen. Errotuladore batez, eguneko irakasgaia idatzi zuen:

GRABITATEA DEFINITZEA.

Nire lagun minak, Billyk, bekain bat jasota zuela begiratu zidan:

